**AKTEA/04**

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

**(2024-01-30)**

| | |
|---|---|
| **Batzarraren izaera:** | Ohikoa |
| **Deialdia** | 1. deialdia |
| **Data:** | 2024-01-30 (Asteartea) |
| **Lekua:** | Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela) |
| **Hasiera-ordua:** | 08:12 |
| **Amaiera-ordua:** | 08:14 |
| **Alkate-Presidentea:** | NEMEH SHOMALY NADIA |
| **Batzordekideak:** | ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA<br>GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE<br>CARUEZO UGALDE MAITE |
| **Bertaratu ez direnak:** | URIARTE ANASAGASTI VICTOR<br>ORTUZAR BUTRON XABIER |
| **Idazkaria:** | LEJARRAGA URIARTE JURDANA |



CSV: 07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2024 11:29:57

DOCUMENTO: 20240957944
Datea: 30/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Aztergaiak**

1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-01-23 TGB (03)

2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3.- Bermeoko Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) artean sinatu zan eguzki instalazio fotovoltaikoari buruzko hitzarmenaren gehigarria sinatzea onartzea.

4.- Alkatetza dekretuen berri emotea.

5.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

**1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-01-23 TGB (03)**

Bertaratutako batzarkideek 2024ko urtarrilaren 23ko 03/2024 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

**2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.**

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik ez daukatela adierazi dute.

**3.- BERMEOKO UDALAREN ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) ARTEAN SINATU ZAN EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOARI BURUZKO HITZARMENAREN GEHIGARRIA SINATZEA ONARTZEA.**

**Xedea**

Azokako instalazino foltovoltaikoen titulartasuna berreskuratzeko, Bermeoko Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) artean sinatu zan eguzki-



CSV: 07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2024 11:29:57

DOCUMENTO: 20240957944
Datea: 30/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

instalazio fotovoltaikoari buruzko hitzarmenaren gehigarria sinatzea onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, azokako intalazaino fotovoltaikoen titulartasuna berreskuratu gura dau ezelako kostu barik, eta horretarako eskubidea emoten deutso aurretik Bermeoko Udala eta Energiaren Euskal Erakundearen artean sinatuta egon dan hitzarmenak. Beraz, eskuraketa hori arautzeko, hitzarmenaren gehigarria prestatu da.

Bigarrena: 2024ko urtarrilaren 18n, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz.

**Argudioak**

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazinoen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. eta 9. artikuluak, eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriaren 9. atalen arabera, alkateari jagoko, baina 2023ko ekainaren 29ko 3.096 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, ahalmena Tokiko Gobernu batzarrarengan delegatzea onartu zan.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Azokako instalazino foltovoltaikoen titulartasuna berreskuratzeko, Bermeoko Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) artean sinatu zan eguzki-instalazio fotovoltaikoari buruzko hitzarmenaren gehigarria sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesduneri erabagiaren barri emotea, hitzarmenaren gehigarria sinatu daiezan.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Zerbitzu Sailari eta Errenta Sailari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagiaren barri emotea.



CSV: 07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2024 11:29:57

DOCUMENTO: 20240957944
Datea: 30/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**4.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Ez da ezer adierazi.

**5.- ESKARI ETA ITAUNAK.**

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



CSV: 07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000E9DF800K7X4D9A3Z8H6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 30/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/01/2024 11:29:57

DOCUMENTO: 20240957944
Datea: 30/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia